



Nafarroako Parlamentu berria kolokan

*Fatxada erori egin zen,
eraikitze lanak egiten ari zirela*

JULIAN ARTEAGA arkitekto nafarrak (Arbeitsa, 1850 - Iruñea 1921) Iruñeko lehen zabalguneko eraikinik emblematikoenetako bat egitea lortu zuen 1892an. Lehenengo, Nafarroako Entzutegia jarri zuten eklektizismoa eta modernismo ukituak zituen eraikin hartan. Laster, nahiz eta egokitze lanak atzeraturik joan, Nafarroako Parlamentua jarriko dute bertan, baina ordurako entzutegi zaharreko horma nagusiak soilik geratuko dira zutik: eduki ezberdina eduki-ontzi berean. Dirudienez, egotzi berri dioten betebeharra ez du gustukoa eraikin zaharrak, eta iragan asteko astelehen gauean fatxada erori egin zitzaion.

Eroritako fatxada zatiko berritze lanak amaituta zeudenez, babeserako sarea kenduta zen ordurako, eta, zorionez, fatxadako zatirik handiena eraikin barrura erori zen, eta ordu haietan inor ez zebilen entzutegi zaharraren inguruan. Hala ere, Iruñeko erdigunean egonik, trafikoan zenbait arazo sortu zituen, Iruñeko udaltzainek inguruko kaleak itxi behar izan baitzituzten.

Berehala eskatu zuten fatxada zergatik erori zen argitzeko ikerlan bat. Oraindik ikus daiteke eraikin zaharreko fatxadan egin den zuloa. Igandean garabi bat bidali

zuten bertara egokitze lanetan diharduen enpresaren arduradunek; eraikineko erlaitzari eutsi eta sendotu egingo omen du garabiak Arteagaren eraikina.

Nafarroako Parlamentuko presidentea Jose Luis Castejonek ez dagoela inolako arriskurik esan zuen herenegun, eta garabia sanfermin jaiak hasteko kenduko dutela aurreratu zuen. Fatxada zergatik erori den oraindik ez dakite, baina, Castejonek esan zuenez, ia segurutzat jo daiteke orain arte berritze lanetan ari den enpresak berak amaituko dituela lanak. Hain garbi ez dagoena da lanak noiz amaituko diren. Parlamentuko presidentek esandakoaren arabera, baliteke 2001eko iraila arte nafar parlamentarioak ezin joan izatea egoitza berrira, berritze lanek bost hilabeteko atzerapena baitute.

Gaizki hasten dena gaizki bukatzen dela esan ohi dute, eta esatera hori egia bada ez da samurra



Egunotan garabi batek eusten dio Nafarroako Entzutegiaren egoitza izandako eraikin zaharraren erlaitzari. Garabia sanferminetarako kenduko dutela agindu dute agintariek.

izango Nafarroako parlamentarioen etxe berriaren etorkizuna. Julian Arteagak Justizia Jauregi izateko eraikitako eraikinak nahi ote du Nafarroako politikarien egoitza nagusi bilakatu?

Asier Legarda
IRUÑEA

Servicio Inmobiliario
KURSAL S.L.
Inmobiliar Zebiltzuek

ETXEBIZITZAK - SALGAI
NAFARROAN: ANDOSILLA / ARELLANO / BIANA / CAPARROSO / CORELLA / GOIZUETA / IRURTZUN / LARRAGETA / MILAGRO
ERRIOXAN: AUTOL / CALAORRA / STO. DOMINGO / VIGUERA
DONOSTIA: ANTIGUO / LARRATXO / ALDE ZAHARRA / GROS
GIPUZKOAN: ANDOAIN: ETXE ADOSATUA / IGELDO: BASERRIA 10.000 m2ko lursorokin / LASARTE / ORDIZIA

Tel. 943 293715 / T.Mug. 667 709072